

Ordizian, 2010ko apirilaren 30ean, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Alejandra Iturrioz Unzueta andrea	PNV taldea
Jon Txurruka Etxezarreta jauna	PNV taldea
Miren Auzmendi Urkiola andrea	PNV taldea
Belen Maiza Urrestarazu andrea	EA taldea
Iban Asenjo Garde jauna	EA taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Jose J.Lopez Fernandez jauna	PSE/EE (PSOE) taldea
Mónica Marañón Basarte andrea	PSE/EE (PSOE) taldea
Mikel Leunda Semperena jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Carlos Gonzalez Astiz jauna	EB-Berdeak/Aralar taldea
Iñigo Manrique Cía jauna	PP taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK**

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aramburu Otegi Jauna

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**

6. puntuan Txurruka jauna joan egin da.  
12. puntuan Auzmendi andrea joan da.



## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

1.-2010eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea	3. orr.
2.2009ko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.	3. orr.
3.Alkatetza Dekretu bidez onartutako kreditu aldaketen berri ematea.	4. orr.
4.-2010eko Aurrekontuetan 2009ko gastuak sartzea onartzea	6. orr.
5.2010eko LPZ eta Plantilla Organikoa aldatzea.	8. orr.
6.Ordizia Lantzen SAko kapitala zabaltzea.	11. orr.
7.-Borondatezko lankideari diru-laguntza (Iparra-Hegoa programa)	13. orr.
8.Bake Epailea eta bere ordezkoa izendatzeko proposamena	15. orr.
9.Eusko Jauriaritzarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena, nazioarteko aterpekide txartela kudeatzeko.	15. orr.
10.Kale-izendegia aldatzeko proposamena.	15. orr.
11.-DBLOren segurtasun agiria aldatzea. Kirol Delegazioaren fitxategia.	15. orr.



## **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK**

### **GORABEHERAK**

#### **GALDE-ESKEAK**

- .- Krisiaren aurkako neurriak
- .- Udaleko alderdi politikoentzako lokala.
- .- Osoko bilkuretan zinegotziak ez egotea.
- .- Publizitate araudia.
- .- Ur Arduraduna
- .- Osoko bilkuretako ordutegiarekin ados ez egotea.
- .- Udaletxeko sarrera nagusia.
- .- Zerbitzu Saileko delegatuaren eskaera, Ur Arduradunaren inguruan hartu beharreko akordioari buruzkoa.

..... 17. orr.

#### **ORDUTEGIA**

HASIERA ORDUA: 8,05 h

BUKAERA ORDUA: 10.00 h.



Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman du Batzordeburuak

## **1.-2010eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea**

### Proposamena

#### **-2010eko martxoaren 26an egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Asenjo jauna

Adierazi du, 8. orrialdeko 5. puntuan "Kutxako Batzordekideen izendapena" puntuan, Alkate jaunak puntuaren presazko izaeraz galdetu zuenean, Idazkariari ere galdetu ziola idatzia noiz iritsi zen udaletxera. Idazkariak erantzun zion esanez ez zekiela data zehatza, baina bazela denbora pixka bat zinegotziak izendatzeko Kutxaren idatzia udaletxera iritsi zenetik. Idazkariak esandakoa ez da aktan jaso eta Asenjo jaunak "berariaz" jasotzea nahi du.

Horrez gain, jakinarazi du, euskarazko aktan bere lehen abizenaren lehenengo hizkia letra xehez azaltzen dela bertaratutakoen artean.

#### Idazkari andrea

Horrekin batera Idazkari andreak jakinarazi du euskarazko eta gaztelerazko aktetan, bietan, nahiz eta aspaldi kargua utzi oraindik azaltzen dela Maialen Galparsororen izena, eta ez dela azaltzen Carlos Gonzalez Astiz jaunaren izena, aipatutako osoko bilkuran Galparsoro andrea ordezkatzeko kargua hartu zuena.

Aipatutako zuzenketak egingo dira.

### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 1 (PP). Manrique jauna ez zen aipatutako osoko bilkurara etorri.



Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du, zehaztutako zuzenketak egin eta gero.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

### **2.2009ko Aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.**

Alkateak Berezko Aurrekontuetako likidazioak, "San Jose" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioak eta "Herri Antzokia" Erakunde Autonomoaren Aurrekontuaren likidazioa onartu ondoren, Gipuzkoako Toki erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 49.3 artikulua betetzeko, likidazio hauen berri ematen da Osoko Bilkuran:

	<b>Aurrekontuen emaitza</b>	<b>Diruzaintzako aurrezki garbia</b>
<b>Berezko Aurrekontua</b>	2.435.450,30	2.129.261,49
<b>"San Jose" Erakunde Aut.</b>	88.258,48	145.472,27
<b>"Herri Antzokia" Erak.Aut.</b>	14.948,79	34.933,57

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Kontu-hartzailea

Esan du 2009a ondo amaitu dela orokorrean, soberakinak eta emaitzak ikusi ondoren.

Hala ere datuak gehiago zehaztu behar dira:

- 2009 urtean finantza aktiboetan zeuden bi milioi euroak eskuratu ziren eta onartutako eskubideetan bi milioi gehiago izan dira.
- Gastuen atalean likidatutako obligazioak soilik kontuan hartzen direla kontuan izan behar da, eta ondoren baimendutako edo prestutasun fasean geratu diren gastuak sartu behar dira, inkorporazio horiek egin eta gero eta kreditu gehigarrien espediente batzuk onartu ondoren diruzaintzako geldikinarren 170.000 € geratzen dira soilik 2009-12-31an.
- Aipagarria da datu hauen barnean sartu dela 2009an ingresatutako Foru Funtsetan itzulketa partzialaren kontabilizazioa. Ordiziako Udalak ez du mailegu bat kontabilizatzeko beharrik izan Foru Funtsera itzulitakoaren ordainetan.

Foru Aldundiaren mailegu mailaren adierazle koadroan Ordizia %5,6rekin azaltzen da, herritarren kopurua antzekoa den udalerrietako estratuetan %6,2, Gipuzkoan %6,6, Beasainen %5,0, Lazkaon %3,5 eta Legazpin %4,1.



Ordiziako datua ez da zuzena, benetakoa %4,98 da.

**Osoko Bilkura jakinaren gainean.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.-Alkatetza Dekretu bidez onartutako kreditu aldaketen berri ematea.**

Gipuzkoako Toki Erakundeetako aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 27.3 artikulua araber, Osoko Bilkuran Aurrekontuen aldaketen berri eman behar da. Aurten oraingoz onartutako aldaketak honakoak dira:

Kreditu transferentziak		
Zenbakia	Dekretu zbkia.	Zenbatekoa
1	252	15.898,48

Kreditu gehigarriak		
Zenbakia	Dekretu zbkia.	Zenbatekoa
2	173	206.910,55
3	174	13.711,33
4	259	91.964,72
5	270	14.787,63
6	271	10.208,00

Kreditu eransketak		
Zenbakia	Dekretu zbkia.	Zenbatekoa
1	260	1.556.764,90

Kredituak gaitzea		
Zenbakia	Dekretu zbkia.	Zenbatekoa
1	319	1.054.910,99
2	320	456.233,03

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

**Osoko Bilkura jakinaren gainean.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren laugarren puntuaren berri eman du:



#### **4.-2010eko Aurrekontuetan 2009ko gastuak sartzea onartzea**

##### Proposamena

2009 urtean zehar aurrekontuan gorde gabeko gastu batzuk egin ziren zenbait partidatan.

2009 urtea itxi baino lehen, gainezkatze hauek konpontzen ahalegindu ginen ahal zen neurrian, Kontabilitatetik 46.889,52 euroko fakturak kenduz.

Otsailaren 4ko Ogasun Delegazioan gaia Gobernu Batzordera eramatea erabaki zen, hiru aukera baitaude:

1.2010eko partidetan kredituak handitzea, sartu behar dituzten gastuen neurri berean.

2.2009ko gastuak bere gain hartuko dituzten partidetak arduradunei 2010erako aurreikusi dituzten gastuak bertan behera uzteko eskatzea, 2009an sartu behar diren gastuen neurri berean.

3.Bi aukerak erabiltzea, egindako gastuan borondate mailaren arabera.

Bukatzeko, eta fakturak ordaintzeko presa ikusita, 2010eko otsailren 25eko osoko Bilkuran aipatutako gastuak 2010eko aurrekontuan sartzea onartu zen, eta beranduago aztertuko dira kredituak gainezka egitearen arrazoiak.

Beranduago aurrekontu krediturik gabeko 2009ko faktura gehiago dagoela ohartu gara.

Gaia 2010-3-3ko Ogasun Delegazioan aztertu dugu.

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34 artikulua finkatutakoaren arabera, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuena, 2010eko otsailaren 17ko Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordean gaia aztertu ondoren, osoko Bilkuran honakoa onartzea proposatzen da

##### AKORDIO PROIEKTUA

**2010 urteko Aurrekontuetan 2009 urteko gastuak sartzea, 46.889,5 euroko zenbatekoarekin.**

**Kreditu gehigarrien espedientea onartzea 2010eko aurrekontuetan 5.317,63 euroko zenbatekoarekin aipatutako gastuen inkorporazioa neurri batean finantzatzeko.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

##### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:



### Kontu-hartzailea

Gastu batzuk tranferitu behar izan ziren 2009tik 2010era.

### Leunda jauna

Bere taldeak Aurrekontuaren kontra bozkatu zuela azaldu du baina gastuak 2009tik 2010era pasatzea ohiko gastuak direla uste du eta zentzu honetan ez dago gastuen zerrenda pasatzearen kontra, eguneroko gastuak direla uste duelako.

### Manrique jauna

Abstenitu egingo dela esan du, bere garaian aurrekontuaren aurka bozkatu zuelako.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 3 (IU/EB-ARALAR 2, PP 1)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **5.2010eko LPZ eta Plantilla Organikoa aldatzea.**

#### Proposamena

2010eko urtarrilaren 14ko osoko bilkuran Lanpostuen Zerrenda eta 2010 urteko ekitaldirako Udalaren Plantilla Organikoa onartu ziren.

Urte honetako martxoaren 29an Administrazioako Erregistroen eta Tokiko Araubidearen Zuzendaritzaren idatziari sarrera eman zitzaion, idatzi horretan adierazten zen ez zirela Euskal Funtzio Publikoko uztailaren 6/1989 Legearen 15 artikuluko baldintzak behar bezala zehazten, eta Hizkuntza Politika Sailaren txostena behar zela zerrendan zeuden Administrazio Orokorreko Administralari eta Gizarte Langile postuetako dotazio berrien hizkuntza eskakizunen inguruan.

Hori guztia ikusirik eta zerbitzu juridikoek gaia aztertu eta gero, aipatutako akatsak zuzendu dira eta LPZn eta Plantilla Organikoan aldaketak egin dira.

2010eko apirilaren 21eko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen oniritziarekin, honakoa proposatzen da:





## AKORDIO PROIEKTUA

**Lehena.- Udalaren Lanpostu Zerrenda aldatzea 2010 urteko ekitaldirako.**

**Bigarrena.- 2010eko Udaleko Plantilla Organikoa aldatzea.**

**Hirugarrena.- GAO n argitaratzea.**

**Laugarrena.- Administrazio Erregistroen eta Tokiko Araubidearen Zuzendaritzari erabaki honen berri ematea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Idazkari andrea

Bertaratutakoei azaldu die Eusko Jaurlaritzako Administrazio Zuzendaritzak Udalari eskatu diola 2010eko urtarrilaren 14eko osoko bilkuran onartutako LPZ eta Plantilla Organikoa araudira egokitzeko, zehazki Euskal Funtzio Publikoko legearen 15. artikulua, eta zuzendu beharreko zenbait arlo daudela.

Agiriaren edukian eraginik ez duten zenbait akats formal dira, Udaltzainburuaren lanposturako proposatutako hautaketa sisteman, "izendapen askeko" proposatu da, eta berez Euskal Autonomia Erkidegoaren Polizia Legeak zehaztutako izendapena da, eta Euskadiko polizia lanpostuak betetzen duen araudiak zehaztutakoa.

#### Asenjo jauna

Adierazi du ez diola Idazkariari kontraktorik esaten, teknikoki eta lege aldetik horrela izango dela dio, baina azkenean erabaki politikoa izan behar duela uste du, eta Legea guztientzako bera izan arren, udal batzuek ez dute era horretan aurreikusten.

#### Dubreuil jauna

Gonzalez Astiz jaunari, zinegotzi berriari azaldu nahi izan dio zergatik sartu diren beste bi dotazio berri Gizarte Ongizate Sailean, 2010eko urteko ekitaldirako.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (PNV 4, EA 2, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2, PP1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**





Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

## **6.Ordizia Lantzen SAko kapitala zabaltzea.**

### Proposamena

2008ko maiatzaren 29an ohiko deialdian Osoko Bilkurak onartu zuen “Ordizia Lantzen SA” Elkarteak San Juan Eremuko etxebizitzaren eta urbanizazioaren garapen-lanak egitea.

Honekin batera, Udaleko Osoko Bilkurak onartu zuen Ordizia Lantzen SAri, Kapital gehikuntza bidez, San Juango Birpartzelatze proiektuaren bidez esleitutako bere jabetzako lursailak eskualdatzea, baita derrigorrez eta doan egindako lagapenaren %10aren lagapenaren ondoriozko lursailak

Ordizia Lantzen SAren Udal Elkarteak, Babes Ofizialeko 60 Etxebizitzaren sustapena sustatu du “San Juan” 22 HIEko a.40.4/1 eta a.40/2 lursailetan. Aipatutako lursailak gaur egun Ordiziako Udalarenak dira sail honetako Birpartelatzeari jarraiki, eta beraz, honakoa proposatzen da:

### AKORDIO PROIEKTUA

**1.-ORDIZIA LANTZEN SA Udal Elkarteari “San Juan” HIE 22ko a.40.4/1 eta a.40/4 lursailtako jabetza pasatzea Elkarte honetako kapital-zabalkuntza bidez.**

**2.- Ordiziako Udala bazkide bakar duen “ORDIZIA LANTZEN SA” erakundeko gizarte kapitala zabaltzea, , BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EHUN ETA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMORA (550.107,60 €) zabaltzea, serie bakarreko LAUROGEITA HAMAIIKA MILA HIRUREHUN ETA LAUROGEI akzio-jaulkipen bidez, BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST MILA BOSTEHUNetik HIRUREHUN ETA LAUROGEITA SEI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMERETZIRA zenbatuta, biak barne.**

**3.- Ordiziako Udalera harpidetzea, guztia eta osorik, zabalduko kapitala, Ordiziako Udalari dagozkion “San Juan” 22 HIEko Birpartzelatze Proiektuko a.40.4/1 eta a.40.4/2 lursailtako jabetzen ekarpen bidez, eta erregistroko inskripzio datuak hauek dira:**

### **a.40.4/1 lursaila**

**Tolosako 2 zbkiko Jabetza Erregistroa**

**Liburukia: 2.190**

**Liburua: 157**

**Orria: 161**

**Lursaila : 8.296**

**Inskripzioa: Birpartzelatzean 1. esleipena.**



#### a.40.4/2 lursaila

Tolosako 2 zbkiko Jabetza Erregistroa

Liburukia: 2.190

Liburua: 157

Orria: 165

Lursaila : 8.297

Inskripzioa: Birpartzelatzean 1. esleipena.

Lursailaren balorazioa egiteko, eta Kapitala zabaltzeko, Gipuzkoako Merkataritza-Erregistroak SERVATAS SA (Tasaziotarako Euskal zerbitzuak) hautatu du lan horretarako, eta tasazio txostenak erantsi ditugu eta kopuruak honakoak dira:

#### a.40.4/1 lursaila:

HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA BAT MILA SEIEHUN ETA HIRUROIGEITA ZAZPI MILA EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMO (361.667,55 €).

#### a.40.4/2 lursaila:

EHUN ETA LAUROGEITA ZORTZI MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HIRU EURO ETA BERROGEITA SEI ZENTIMO (188.443,46 €).

ORDIZIA LANTZEN SARI transmitituko zaion lursail-tasazioaren balio osoa kapital zabalkuntza bidez, honakoa izango da: BOSTEHUN ETA BERROGEI MILA EHUN ETA HAMAIKA EURO ETA ZENTIMO BAT (550.111,01 €).

Lursailletako transmisio balioa Kapitala zabaltzeko BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMAR MILA EHUN ETA ZAZPI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMOtan (550.107,60 €) zehazten da.

4.- Jose Miguel Santamaría jaunari Ordiziako Udalaren izenean Alkate-Lehendakari gisa notario aurrean aurkezteko baimena ematea eta akordio honetan jasotako 1 eta 2 puntuetan zehaztutako kapital zabalkundea onartzea Eskritura Publikoan jasotzeko 3. puntuan zehaztutako lursailen transmisio bidez.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Puntu honetan Txurruka jauna joan egin da.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna

Kapitala handitzeak balorazio bat eta Udalaren San Joango 2 lursail Ordizia Lantzen SAREN esku uztea ekarri duela azaldu du.



Lursail bat Udalarari iritsi zaio aprobetxamenduaren %10aren lagapenaren ondorioz, kargatzeko gasturik gabe, Udalarari dagokio eta beste lursaila ondarezkoa da, hau da, lehendik Udalarena zen.

#### Leunda jauna

Behin baino gehiagotan azaldu du Ordizia Lantzenen kudeaketa ereduarekin eta hori kudeatzen duen ESARBE SA enpresarekin ez zegoela konforme eta Saileko Babes Ofizialeko Etxebizitza guztiak jabetzakoak izatearekin eta alokairuzko etxerik ez izatearekin ere ez dago konforme.

Hala ere proiektuaren alde bozkatuko du, bere ustez beharrezkoa baita Babes Ofizialeko etxebizitza.

#### Alkate jauna

Alokairuzko etxebizitza sustatzeak finantza arloko zama handia duela erantzun dio, ezin duela Udalak bere gain hartu, baina hala ere Floreagako etxebizitzak alokairuzkoak izateko Eusko Jaurlaritzakoekin harremanetan izan direla jakinarazi dio Leunda jaunari.

#### Dubreuil jauna

EB/ARALARek sustapenaren bolumena ezagutzen duela uste du eta oso zaila iruditzen zaio, ezinezkoa ez esateagatik, dirua behar baita babes ofizialeko etxebizitzak berriro sustatzeko.

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 3, EA 3, PSE-EE (PSOE) 2, IU/EB-ARALAR 2, PP1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **7.-Borondatezko lankideari diru-laguntza (Iparra-Hegoa programa)**

#### Proposamena



Ipar-Hegoa kooperazio programetan parte hartzeagatik Ordiziako gazteei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituen araudia jarraituz eta 2010 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, azaroaren 30era arte irekita zegoena, apirilean eskaera bakarra aurkeztu da. Erabiltzeko moduan dagoen aurrekontu partida pertsonako 1.500 eurokoa da.

Eskaera aztertu ondoren eta 2010eko apirilaren 21ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa onartzea proposatzen da:

#### AKORDIO PROIEKTUA

1300 euroko diru-laguntza onartzea eta Sandra Agúndez del Castillori ematea UPV/EHUko kooperante gisa Senegalera egingo duen bidairako, maiatzean Oussuoye eta Ziguinchor hiri inguruetako ikastetxeetan gizarte hezitzaile gisa arituko da lanean.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna

Iparra-Hegoa kooperaziorako diru-laguntzen araudian herriko gazteen artean kooperazioa sustatzeko atal bat dagoela azaldu du. Gazte baten eskaera dago, Senegalera programa bat aurkeztu du, eta horrelako proiektuak egotea ona dela adierazi du. EHUK baimendutako proiektua dela jakinarazi du.



### Leunda jauna

Jakinarazi du Araudia ez duela gustoko, ez zutela parte hartu egin zutenean, Alkatetzari nahi duena egiteko eta diru-laguntzak nahi duen bezala banatzeko bidea ematen diolako.

### Dubreuil jauna

Beste noizbait ere esan zuela azaldu du, Kooperaziora bideratutako %100a datozen urteetan Haiti berreraikitze erabiltzea gustatuko litzaioke.

Araudia aldatzea eskatzen du eta alderdi politiko guztiek parte hartzea eskatzen du, Filipinak eta Mexikorekin hartu diren konpromisoak ahaztu gabe.

### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzeko eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 ( PNV3, EA 3, PSE-EE (PSOE) 2, IU/EB-ARALAR 2, PP1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **8.Bake Epailea eta bere ordezkoa izendatzeko proposamena**

#### Proposamena

2009ko urriaren 22ko osoko bilkurako erabakiaren berri ematen da eta Juan Iztueta Irisarri proposatzen da Bake Epaile gisa eta Shelly Gallina Foster ordezko Epaile gisa.

Duela gutxi Juan Iztueta jauna zendu zela kontuan hartuz eta Shelly Gallina ordezko epaileak karguari uko egin diola kontuan izanda, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Epaitegi Nagusiak eskatuta Bake Epaile berriaren eta haren ordezkoa izendatzeko prozedura hasi zen.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 47. zbkian, 2010eko martxoaren 11n, aipatutako karguak hartzeko eskaerak eta zegozkion agiriak aurkezteko epea zabaldu zen.



Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101 artikulua eta ondorengoek eta 1995eko ekainaren 7ko Bake Epailen Araudian zehaztutakoaren arabera, eta apirilaren 19ko Tokiko Gobernu batzordearen erabakia ilusita, apirilaren 21eko osoko bilkurarako Gaien batzordeak, honakoa onartzea proposatzen du:

## AKORDIO PROIEKTUA

**1.- JOSE MANUEL OTEGI DORRONSORO jauna Bake Epaille titular kargurako izendatzea eta PEDRO GORROCHATEGI ARAMBURU ordezkoko Epaille gisa izendatzea.**

**2.Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Epaitegi Nagusira bidali kopia, izendapena egiteko.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jauna

Bake Epaillea izan zen Juan Iztueta jauna hil eta gero eta bere ordezkoko Epailleak karguari uko egin eta gero izendapen berria egin behar dela jakinarazi du.

4 eskaera aurkeztu dituzte, eta horietako bi Ordiziakoak dira.

Maila pertsonalean, Dubreuil jaunak eskerrak eman nahi izan dizkio Juan Iztuetari eta bere familiari bere azken urteotako lan eta dedikazioagatik.

#### Dubreuil jauna

Horrez gain Jose Manuel Otegi jauna ezagutzen duela jakinarazi du Dubreuil jaunak, boluntaritzan parte hartzen duen pertsona dela esan du, sentikorra eta parte-hartzailea eta bere ustez ondo beteko du Bake Epaille lana.

#### Leunda jauna

Proposatutako pertsonak euskaraz badakiten galdetu du.

Baietz erantzun dio.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du



Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 3, EA 3, PSE-EE (PSOE) 2, IU/EB-ARALAR 2, PP1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**9.Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan aritzeko hitzarmena, nazioarteko aterpekide txartela kudeatzeko.**

Proposamena

Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzari dagokio kultura eta gizarte sustapen planak egitea, aisialdiaren gizarte, kultura eta hezkuntza erabilera sustatzea eta gazte arloan eta gizarte ekintzetan zuzeneko ekintzak burutzea.

Eusko Jaurlaritzaren helburuak, besteak beste, gazteek kultura-, natura-ondasunak eta zerbitzuak erabili ahal izateko eta horietara sarbidea izateko eta errazteko txartelak egitea da. Era horretan euskal gazteen bizitza baldintzak hobetu egingo dira, gizarte eta kultura arloko aukerak zabaltzean.

Helburu hori lortzeko beharrezkoa da informazioa zabaltzeko programa bat sustatzea, gazteek Gazteentzako Aterpeen Nazioarteko Federazioaren aterpekide txartelaren modalitateak, erabilera, abantailak lortzeko moduak etab ezagutzeko.

Aipatutako txartelak era eragingarrian banatzeko, txartelak gazte aterpeen bidez eta udaleko gazte informazio bulegoen bidez banatzea komenigarria dela ikusten da.

2010eko otsailaren 21ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

**\*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Ordiziako Udalaren arteko hitzarmena izenpetzea, gazteentzako aterpekide izateko nazioarteko txartelak kudeatzeko.**

**\*Alkate-Lehendakariari Udal honen izenean beharrezkoak diren agiriak sinatzeko eskumena ematea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.





## Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

### Leunda jauna

Horrek Udalari lan gehiago ekarriko dion galdetu du.

### Auzmendi andreak,

Ezetz erantzun dio. Txartelak prestatzen ari dira eta Hitzarmenarekin lortu nahi dena da orain arte egiten den zerbait formalizatzea. Hitzarmenaren helburua horrekin batera gazte informazioei laguntza teknikoa eta lankidetzaren ematea da

### Maiza andrea

Auzmendi andreari galdetu dio ea horrelako eskaera asko dagoen eta langilearen lanaldiko zein portzentaia kenduko dion lan horrek. Epe batean jakin dezakeen galdetu dio.

### Auzmendi andreak,

Batez ere eskaerak udan izaten direla jakinarazi dio, nahiz eta urte guztian zehar eskaera batzuk egon.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

## Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 3, EA 3, PSE-EE (PSOE) 2, IU/EB-ARALAR 2, PP1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **10.Kale-izendegia aldatzeko proposamena.**

## Proposamena



Euskaltzaindiak egindako hasierako proposamenetik abiatuta Alkatetzak aurkeztutako kale-izendegia aldaketa proposamenaren berri eman da.

Horrekin batera San Joan-22 HIEn kale berriei izena jarri behar zaiela jakinarazi da eta Euskaltzaindiak egindako hasierako proposamenetik abiatuta Alkatetzak proposamena aurkeztu duela.

Hori guztia ikusita, 2010eko martxoaren 21ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak, honakoa onartzea proposatzen du:

## AKORDIO PROIEKTUA

### 1.-Ondorengo kaleen izenak aldatzea.

<u>Gaur egungo izena</u>	<u>Izen berria</u>
Arana kalea	Jose Arana kalea
Arteaga kalea	Jose Joaquín Arteaga kalea
Bustuntza etxealdea	Buztuntza etxaldea
Bustuntza plaza	Buztuntza plaza
Filipineta kalea	Filipinak kalea
Foruen pasealekua	Foru pasealekua
Gernikako Arbolen kalea	Gernikako Arbola pasealekua
Goenkalea	Goenkale
Goitia kalea	Domingo Goitia kalea
Granja San Isidro	Arranomendia
Ibarbia kalea	Joaquin Ibarbia kalea
Intsausti plaza	Intxausti plaza
Juan de Amezqueta kalea	Joan Amezqueta kalea
Laskaibar	Lazkaibar
Lukusin plaza	Lukusain plaza
Majori plaza	Majoria plaza
Mariaratzaldea	Mariaratsaldea
Mariaratz kalea	Mariarats kalea
Mendizabal kalea	Victor Mendizabal kalea
Nikolas Lekuona plaza	Nicolas Lekuona plaza
Oiangurenaldea	Oianguren
San Inazio kalea	San Ignazio kalea
San Juan auzoa	San Joan auzoa
San Pedro-Don Petri kalea	Done Petri kalea

### 2.San Joanen sortuko diren kale berrien izen proposamena onartzea.

- Zabalabidea kalea (San Joan Hirigintza Proiektuko antolamendu-mapako A-B)
- Zeberioenea kalea ( Mapako A-C )
- Otatza kalea (Mapako H-G)



- d) Floreaga kalea (Mapako F-G-L)
- e) Intxaurzar kalea (Mapako I-F-J)
- f) Karrillazpi kalea ( Mapako C-E)
- g) Zabalaldea plaza ( Mapako H-G-I)
- h) Filipinak kalea ( Mapako C punturaino )
- i) Irubureta kalea ( Mapako H puntua )

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Asenjo jauna

Euskaltzaindiaren proposamena osorik onartzearen aldekoa dela jakinarazi du.

#### Leunda jauna

Gaia nola landu den jakin nahi izan du, onartzeko ekartzen den proposamena nola prestatu den.

#### Alkate jauna

Euskaltzaindiako Mikel Gorrotxategi jauna proposamena azaltzeko Gai Arrunten Batzordera etorri zela jakinarazi du.

#### Maiza andrea

Azaldu du azkeneko bi urteetan bi bekadun aritu direla toponimiako gaia aztertzen eta egindako lanen artean dagoela kale-izendegia begiratzea, eta toponimiaren eta UNESCOren irizpideak kontuan hartuta kale-izendegi berria eguneratzeko proposamena egin dela.

Euskaltzaindiaren proposamenean izena aldatzeko proposamena egiten da, aldaketa batzuk grafiaren ingurukoak dira, beste kasu batzuetan izenak laburtu dira, UNESCOren irizpidea da honakoa eta beste kasu batzuetan izen osoa aldatu da.

Honekin batera jakinarazi du puntu honetara iritsi eta lana guztiz ez bukatzeak atsekabetu egiten duela. Europako Zuzendaritzak, GPS bezalako teknologia berriek...kaleetan izen laburrak ipintzea aholkatzen dute.

#### Asenjo jauna

Azken bi urteetako lana Euskaltzaindiak zuzendu duela jakinarazi du eta proposamen hau beste proposamen batzuekin nahastea dena korapilatzea dela esan du. Euskara Sailak egindako lana alferrik botatzea dela uste du.



Kale-izen batzuk ez dituzte kontuan hartu ez izen-abizenak mantentzeagatik bakarrik, beste batzuetan, adibidez Elizkaleren kasuan tokiko toponimoak ere ez dituzte kontuan hartu.

#### Dubreuil jauna

Euskaltzaindiak egindako lana baloratzen du baina bere ustez udaleko borondate politikoak beste era batera pentsa dezake eta kale-izenen kasuan ohitura oinarri sendoa dela uste du.

#### Manrique jauna

Bertakoek kaleak izendatzeko erabiltzen dituzten izenak garrantzitsuak direla uste du.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

#### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 5 (EA 2, IU-EB/Aralar, 2, PP 1)

#### Asenjo jauna

Euskaltzaindiaren proposamena bozkatzeko eskatu du eta horretarako proposamena eguneko gai ordenean sartzeko eskatu du.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

#### Bozketa

Aldeko botoak: 5 (EA 2, IU-EB/Aralar 2, EAJ/PNV 1)

Kontrako botoak: 1 (PP)

Abstentzioa: 2 (EJA/PNV, Santamaría jauna eta Iturrioz andrea)

**Beraz, Euskaltzaindiaren proposamena bozkatzea baztertzen da.**

#### Asenjo jauna

Euskaltzaindiaz barre egitea dela uste du. Alkate jaunari galdetu dio ea zein irizpide jarraitu duten aldaketa batzuk onartzeko eta beste batzuk ez onartzeko. Bere ustez ez dago irizpiderik.

Alkate jaunak erantzun dio.



## Astiz jauna

Euskaltzaindiaren proposamenak garantiza duela uste du baina azken erabakia Udalarena dela uste du.

## Dubreuil jauna

Proposamenean irizpide batzuk finkatu direla uste du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **11.-DBLOren segurtasun agiria aldatzea. Kirol Delegazioaren fitxategia.**

Izaera pertsonaleko datuak babesteko fitxategia eta segurtasun agiria aldatzea.

2010eko urtarrilaren 14ko osoko bilkuran Izaera pertsonaleko datuak babesteko Segurtasun Agiria eta Udaleko fitxategien zerrenda onartu zen.

Beharrezkoa da gaur egungo fitxategi zerrendan beste 4 fitxategi gehiago sartzea; fitxategi hauek Kirol delegaritzaren menpean daude eta honakoak dira.

#### **BAZKIDEEN FITXATEGIA**

Administrarritza mota:	Toki administrazioa
Fitxategiaren arduraduna:	ORDIZIAKO UDALA
<b>Fitxategiaren izena:</b>	<b>BAZKIDEAK</b>
Fitxategiaren deskribapena	Udal kiroldegiko instalazioak erabiltzeko bazkide egiten diren pertsona guztien informazioa
Xedea eta erabilera:	Bazkideen datuak, kuotak, informazioa,... kudeatu.
Zein pertsona eta talderen izaera pertsonaleko datuak jasoko diren:	BAZKIDEAK
Aurka egiteko, datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea gauzatzeko helbidea.	Kale Nagusia 24 20240 ORDIZIA
Datuen jatorria	Interesatua bera edo bere legezko ordezkaria
Datuak jasotzeko prozedura:	Formularioak
Oinarrizko egitura eta datu motak:	-Identifikazio datuak. - Datu ekonomikoak eta finantzetakoak - Transakzio datuak
Datuen lagapena:	Bankuei, Gipuzkoako Foru Aldundiari, kirol instalazioak kudeatzen duten enpresei,...
Nazioarteko transferentziak	Ez dago
Segurtasun neurriak	Maila baxua

#### **ERABILTZAILEEN FITXATEGIA**

Administrazio mota:	Toki administrazioa
Fitxategiaren arduraduna:	ORDIZIAKO UDALA
<b>Fitxategiaren izena:</b>	<b>ERABILTZAILEAK</b>
Fitxategiaren deskribapena	Kirol ekintzak egiteko izena ematen duten pertsonen informazioa.
Xedea eta erabilera:	Harpidedunen datuak, kuotak, informazioa,... kudeatu.
Zein pertsona eta talderen izaera	ERABILTZAILEAK



personaleko datuak jasoko diren:	
Aurka egiteko, datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea gauzatzeko helbidea.	Kale Nagusia 24 20240 ORDIZIA
Datuen jatorria	Interesatua bera edo bere legezko ordezkaria - Erregistro publikoak. - Administrazio publikoak.
Datuak Jasotzeko prozedura:	Formularioak
Oinarrizko egitura eta datu motak:	-Identifikazio datuak. - Datu ekonomikoak eta finantzekoak - Transakzio datuak
Datuen lagapena;	Bankuei, Gipuzkoako Foru Aldundiari, kirol instalazioak kudeatzen duten enpresei,...
Nazioarteko transferentzia	Ez dago
Segurtasun neurriak	Maila baxua

#### HARREMANETARAKO FITXATEGIA

Administrazio mota:	Toki administrazioa
Fitxategiaren arduraduna:	ORDIZIAKO UDALA
<b>Fitxategiaren izena:</b>	<b>HARREMANAK</b>
Fitxategiaren deskribapena	Kirol-jardueren inguruko informazioa eskatzen duten pertsonen buruzko informazioa.
Xedea eta erabilera:	Informazioa eskatzen duten pertsonen datuak kudeatzea.
Zein pertsona eta talderen izaera personaleko datuak jasoko diren:	Eskatzaileak
Aurka egiteko, datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea gauzatzeko helbidea.	Kale Nagusia 24 20240 ORDIZIA
Datuen jatorria	Interesatua bera edo bere legezko ordezkaria
Datuak Jasotzeko prozedura:	Formularioak
Oinarrizko egitura eta datu motak:	-Identifikazio datuak.
Datuen lagapena;	Kirol instalazioak kudeatzen duten enpresei.
Nazioarteko transferentzia	Ez dago
Segurtasun neurriak	Maila baxua

#### OSASUN ZERBITZUEN FITXATEGIA

Administrazio mota:	Toki administrazioa
Fitxategiaren arduraduna:	ORDIZIAKO UDALA
<b>Fitxategiaren izena:</b>	<b>OSASUN ZERBITZUA</b>
Fitxategiaren deskribapena:	Osasun azterketa eskatzen duten pertsonen datuen informazioa.
Xedea eta erabilera:	Osasun azterketen datuak kudeatzea.
Zein pertsona eta talderen izaera personaleko datuak jasoko diren:	Eskatzaileak
Aurka egiteko, datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea gauzatzeko helbidea.	Kale Nagusia 24 20240 ORDIZIA
Datuen jatorria	Interesatua bera edo bere legezko ordezkaria
Datuak Jasotzeko prozedura:	Formularioak
Oinarrizko egitura eta datu motak:	- Identifikazio datuak. - Datu ekonomikoak eta finantzekoak - Transakzio datuak - Osasun datuak
Datuen lagapena;	Kirol instalazioak kudeatzen duten enpresei, sendagileei
Nazioarteko transferentzia	Ez dago
Segurtasun neurriak	Maila altua



Honek Segurtasuneko Agirian ondorengo aldaketak ekarriko ditu:

- Fitxategi berriak txertatu dira: BAZKIDEAK, ERABILTZAILEAK, HARREMANAK ETA OSASUN ZERBITZUA, Ordiziako Udaleko fitxategi zerrendan XEDEA ETA ERABILERA 1. puntuan . EZARPEN EREMUA 6.orr.
- 2. puntuan ERANTZUKIZUNAK. LANGILEEN FUNTZIOAK ETA EGINBEHARRAK 8.orr, fitxategi berrien arduradunak txertatu dira.
- A eranskinean Ereduak eta erregistroak. ORDIZIA UDALEKO FITXATEGIAK informazio klausuletan txertatzen dira fitxategi hauen baimena lortu ahal izateko, 44 eta 45. orr.
- D eranskinean INFORMAZIOAREN SARBIDEA ETA ZAINZA, 56.orr, fitxategi hauen informaziora sarbidea izateko eta zaintzeko datuak daude .
- E eranskinean TRATAMENDU ZENTROAK ETA TOKIKOAK, 57.orr, fitxategi hauen informazioaren kokapena txertatzen da.
- F eranskinean, FITXATEGIETARA SARTZEKO BAIMENA DUTEN LANGILEAK, 58.Orr., fitxategietara sartzeko baimena duten langileen informazioa txertatzen da.
- L ERANSKINEAN, DATUEN BABESERAKO EUSKAL AGENTZIARI AITORTUTAKO FITXATEGIEN AGIRIAK, 79.Orr, lau fitxategi berri txertatu dira.
- II. Eranskina, kultura-kirola saileko fitxategiak sortzea 80 eta 81.orr txertatzen dira.

GATUEN BABESERAKO EUSKAL AGENTZIAK horrela gomendaturik, maila ALTUko fitxategietan txertatu behar dira, ONDARE ERREKLAMAZIOEN FITXATEGIA, HIRITARREN SEGURTASUNERAKO FITXATEGIA eta OINARRIZKO GIZARTE O ZERBITZUEN ERABILTZAILEEN FITXATEGIA, "OSASUN" arloko identifikazio datuak horrela idatzirik geratuko dira esplizituki:

#### ONDARE ERREKLAMAZIOEN FITXATEGIA

Admintrazio mota:	Toki administrazioa
Fitxategiaren arduraduna:	Ordiziako Udala
<b>Fitxategiaren izena:</b>	<b>ONDARE ERREKLAMAZIOAK</b>
FITXATEGIAREN DESKRIBAPENA:	Kaltetutako pertsonen informazioa.
Xedea eta erabilera:	Mota honetako erreklamazioa ipintzen duten pertsonen datuen kudeaketa.
Zein pertsona eta talderen izaera pertsonaleko datuak jasoko diren:	Kaltetutako pertsonak
Aurka egiteko, datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea gauzatzeko helbidea	Kale Nagusia 24 20240 ORDIZIA
Datuen jatorria	Interesatua bera edo bere legezko ordezkaria - Interesatua ez den beste pertsona fisikoak
Datuak Jasotzeko prozedura:	Formularioak
Oinarrizko egitura eta datu motak:	-Identifikazio datuak. - Ezaugarri pertsonalen datuak - Transakzio datuak - Osasun datuak - Bereziki babesturiko datuak: Osasuna
Datuen lagapena:	Aseguru-entitateak
Nazioarteko transferentziak	Ez dago
Segurtasun neurriak	Maila altua

#### HIRITARREN BABESERAKO FITXATEGIA

Admintrazio mota:	Toki administrazioa
Fitxategiaren arduraduna:	Ordiziako Udala



<b>Fitxategiaren izena:</b>	<b>HIRITARREN BABESA</b>
Fitxategiaren deskribapena:	Udaltzainek beraien jardueraren ondorioz jasotzen duten informazioa.
Xedea eta erabilera:	Udaltzainek izapidetzen duten isun eta istripuen kudeaketa, eta udalerraren segurtasuna
Zein pertsona eta talderen izaera pertsonaleko datuak jasoko diren:	Arau-hausleak, istripuetan zauritutakoak
Aurka egiteko, datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea gauzatzeko helbidea	Kale Nagusia 24 20240 ORDIZIA
Datuen jatorria	Interesatua bera edo bere legezko ordezkaria
Datuak Jasotzeko prozedura:	Inkestak edo elkarrizketak
Oinarrizko egitura eta datu motak:	-Identifikazio datuak. - Ezaugarri pertsonalen datuak - Transakzio datuak - Osasun datuak - Bereziki babesturiko datuak: Osasuna
Datuen lagapena:	Administrazio publikoei.
Nazioarteko transferentzia	Ez dago
Segurtasun neurriak	Maila altua

#### ONARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN ERABILTZAIEN FITXATEGIA

Admintrazio mota:	Toki administrazioa
Fitxategiaren arduraduna:	Ordiziako Udala
<b>Fitxategiaren izena:</b>	<b>ONARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN ERABILTZAIEN</b>
Fitxategiaren deskribapena:	Zerbitzuaren erabiltzaileen eta senideen informazioa.
Xedea eta erabilera:	Baliabideak tramitzeko departamentu honetara hurbiltzen diren pertsonen informazioa
Zein pertsona eta talderen izaera pertsonaleko datuak jasoko diren:	Zerbitzuaren erabiltzailea eta senideak (Adin txikiko eta drogamenpekoatasuna duten pertsonen informazioa du)
Aurka egiteko, datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko edo baliogabetzeko eskubidea gauzatzeko helbidea	Kale Nagusia 24 20240 ORDIZIA
Datuen jatorria	Interesatua bera edo bere legezko ordezkaria - Interesatua ez den beste pertsona fisikoak
Datuak Jasotzeko prozedura:	Inkestak edo elkarrizketak - Formularioak edo kupoak
Oinarrizko egitura eta datu motak:	Bereziki babesturiko datuak: - -Identifikazio datuak. - Ezaugarri pertsonalen datuak - Gizarte inguruabarreko datuak - Datu akademikoak eta lanbideari dagozkionak - Lan ezaugarrien datuak - Datu ekonomikoak eta finantzekoak - Transakzio datuak - Osasun datuak
Datuen lagapena:	Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurilaritza
Nazioarteko transferentzia	Ez dago
Segurtasun neurriak:	Maila altua

Bestalde, Segurtasun Agiriko II Eranskinean ez dago "ekitaldiak" fitxategia, eta sartu egin behar da.

#### EKITALDIAK FITXATEGIA

Administrazio mota:	Toki administrazioa
Fitxategiaren arduraduna:	Ordiziako Udala
<b>Fitxategiaren izena:</b>	<b>EKITALDIAK</b>
Fitxategiaren deskribapena:	Ordiziako Udalak antolatzen dituen erakunde mailako ekitaldietan parte hartzen dutenen informazioa
Xedea eta erabilera:	Ordiziako Udalak antolatzen dituen ekitaldietan interesa duten pertsonen deialdia egitea.
Zein pertsona eta talderen izaera pertsonaleko datuak jasoko diren:	Interesatuak, erabiltzaileak
Aurka egiteko, datuetara sartzeko,	Kale Nagusia 24





datuak zuzentzeko edo balio gabetzeko eskubidea gauzatzeko helbidea	20240 ORDIZIA
Datuen jatorria	Interesatua bera edo bere legezko ordezkaria - Interesatua ez den beste pertsona fisikoa edo haren ordezkaria
Datuak Jasotzeko prozedura:	Inkestak edo elkarrizketak - Formularioak edo kupoiak
Oinarrizko egitura eta datu motak:	-Identifikazio datuak. - Ezaugarri pertsonalen datuak
Datuen lagapena:	Ez dagokio
Nazioarteko transferentziak	Ez dagokio
Segurtasun neurriak	Maila baxua

Hori ikusita, ondorengo akordio proiektua proposatzen da:

- 1.- Ordiziako Udaleko izaera pertsonaleko datuak babesteko eta segurtasun agiria aldatzea.
- 2.Kirol Delegazioaren menpeko fitxategi zerrenda onartzea. Bazkideen fitxategia, erabiltzaileen fitxategia, Harremanetarako fitxategia eta Zerbitzu Juridikoetako fitxategiak.
- 3.Akordio hau GAOn argitaratzea.
- 4.- Inskripziorako argitalpenaren berri ematea Datuak Babesteko Euskal Agentziari.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaltu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Idazkari andrea

Gaiaren presazko izaera azaldu du. DBLO arautzea beharrezkoa da, Kirol Saileko izaera pertsonaleko datuen fitxategiekin.

Hasteko puntua presazko izaerarekin sartzea bozkatu behar da.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, EA 2, PP 1, IU/EB- Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

#### Alkate jauna



Azaldu du zergatik den garrantzitsua 2010eko urtarrilaren 14an onartu zen Udalaren jabetzako segurtasun agiria eta fitxategia aldatzea.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

### Bozketa

Eztabaida amaitu ondoren eta bertaratutakoei zerbait esateko aukera eman eta gero, Alkate jaunak proposamena bozkatzea eskatu du

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 11 (PNV 3, PSE-EE (PSOE) 3, PP 1, IU/EB- Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 2 (EA 2)

### Leunda jauna

Proposamena gazteleraz bakarrik jaso duela eta, hori salatu nahi izan du.

### Idazkari andrea

Idazkari andreak esan dio ez duela itzultzeko denborarik izan.

### Maiza andrea

Bere ustez itzulpenen kontua ez da hain sinplea. Langaileak formazioa jasotzen ari dira eta euskaraz eta gazteleraz lan egiteko gai izan beharko lukete. Ez daki arazo politiko bat den beharrezko neurriak ez hartzeagatik.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **12.- Galde-eskeak.**

Auzmendi andreak puntu honetan bilera utzi du.

Alkate jaunak aurreko Tokiko Gobernu Batzarrean krisiari aurre egiteko neurriei buruzko argibideak eman ditu. Esan du hartutako neurriak jasoko dituen dokumentua landuko duela, eta alderdi politiko guztiei helaraziko diela.

Dubreuil jaunaren iritziz, proposamena landuko duen lantaldea sortu beharko litzateke.

.....



Asenjo jaunak esan du Udaletxea birgaitzeko lanak bukatu direla, eta dagoeneko lekualdatzea egin dela. Halaber, aipatu duenez, bere garaian esan zuen alderdi politikoez lokal bana izan beharko luketela eraikinean.

Alkate jaunak erantzun dio gaia aztertzeko dagoela.

Erantzun dio Barretxe eraikinean hiru postu edo eremu gaitu zirela alderdi politikoentzat. Gainera, esan du edozein taldek erabil dezakeela eraikineko edozein batzar-gela eta Osoko Bilkuren aretoa, libre baldin badago.

Dubreuil jaunak esan du berak ere arazoak dituela Barretxen Gizarte Ongizateko erabiltzaileekin elkartzeko. Bat dator Asenjo jaunarekin; hau da, guneak behar dira herritarrekin bilerak egiteko behintzat.

Asenjo jaunak berriro ere esan du alderdi politikoez eta langileen batzordeak lokal gutxi dituztela.

Maiza andreak, ildo berean, esan du Udaletik dokumentazio ugari jasotzen duela, eta bere etxeko gela batean duela metatuta. Lanerako areto edo gela bat eduki beharko lukeela esan du.

Bere iritziz, udalaren proiektua oso ikuspegi mugatuarekin landu da.

Asenjo jaunaren iritziz, Ordizia izango da 10.000 biztanle baino gehiago edukita, alderdi politikoentzako lokalik ez duen udalerririk bakarrenetakoa.

.....

Leunda jaunaren iritziz, EAJko zinegotziek ez dute errespeturik erakutsi Osoko Bilkura utzita, eta, halaber, ordua 8:00etan jartzen bada, ondorio guztiekin jarri behar da.

Alkate jaunak erantzun dio ez direla Osoko Bilkura amaitu aurretik bilera uzten duten zinegotzi bakarrak, eta gaur alde egin duten zinegotziek lan-arrazoiak tarteko egin dutela alde.

.....

Leunda jaunak esan du, Arartekoaren iradokizunei helduta, udalerrian irisgarritasuna igogailuekin egin behar dela, eta ez arrapala mekanikoekin. Beraiek eskatu zuten, bere garaian, Joan Amezketa kaletik Santa Maria kalerako pasagunerako igogailua.

Halaber, esan du Telefónicak jarri berri duen telefono-kabinak ez duela irisgarritasun-baldintzak betetzen. Aipatu kabina jartzeko baimena Udalak eman badu, Telefónicari eskatu beharko lioke kabina elbarrituentzat egokitzea. Alkate jaunak erantzun dio jasoko duela horren inguruko informazioa.

.....



Leunda jaunak galdetu du zer bide izango duen publizitate-arautegia onartzeko prozedurak. Artzain Eguna dela-eta, makina bat kartel zegoen (baditu argazkiak), eta Udalak eman beharko luke eredu Ordenantza errespetatzen. Coca-Cola makinetan ere ikusi ditu kartelak.

.....

Leundak galdetu du, Ur Partzuergoa dela-eta, nola dagoen Emilio Alvarezen kontua, eta esan du jakin duela Partzuergoa hura ordezkatzeari kudeatzen ari dela. Bere iritziz, hasiera baten iruzur egin zioten langilea ados zegoela esanda, eta hori ez da horrela.

Dubreuil jaunak erantzun dio Aralarrek kanpoko kontratazioetan kutunkeriak jokatzeaz gain, zerbitzuak kalitatea galdu duela, erabiltzaileei prezioa igo zaiela... aipatzen dituela. Hori gezurra da. Bere iritziz, zerbitzuen esleipenak jasotzen dituzten enpresek dirua irabazi behar dute, baina ez du uste zerbitzu publikoetan langile murrizketa dagoenik. Zalantzarik gabe, aldi baterako kontratuak edo kontratu prekarioak daude; hori horrela da, eta krisi garai hauetan gehiago. Kanpora ateratako zerbitzu guztien kudeaketaren prezio publikoak udalak zehazten ditu.

Kalitate onaren eredu ditugu: eguneko zentroa, etxez etxeko laguntza. Pribatizazioa aipatzen da behin eta berriro, eta ez dago halakorik. Aralarrek gobernatzen dituen zenbait udalerritan polikiroldegiak eraikitzeke erabakia hartu dute, eta kudeaketa zeharkakoa izan da.

Bere iritziz, zeharkako kudeaketa ezinbestekoa da udalarentzat.

Eskailerei eta arrapalei dagokienez, esan du baduela Arartekoaren iradokizunen berri, baina arrapala eta eskailera mekanikoak ez omen dira soilik minusbaliotasuna dutenentzat. Bere iritziz, aipatu elementuak instalatzeko eta kokatzeko berariazko plana egin beharko litzateke.

Publizitateari buruzko ordenantzari dagokionez, berriz, panelen kontu hori lantzen ari da.

.....

Leunda jaunak berriro ere adierazi du ez dagoela ados osoko bilkuren orduarekin.

.....

Asenjo jaunak galdetu du ea udaletxerako ate nagusik itxita jarraitu behar duen.

Alkate jaunak erantzun dio neurri hori hartu dela herritarrek Arreta Bulegora bideratzeko.

.....

Asenjo jaunak esan du Emilio Alvarezen kontuan hartuko den erabakian, bertan egon nahi duela.

Alkate jaunak erantzun dio gobernu-batzarrean aztertuko dutela.



Asenjo jaunak oroitara zi dio bera dela Zerbitzu Arloaren ordezkaria.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.

